

## FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure balio-proposamena aurrera eraman ahal izateko, ezinbestekoa izango da gure janari guztia ekologikoa izatea eta menu begetariano/begano edukitzea. Ezinbestekoa izango da ere kontzertu edo beste ekintza desberdinak egitea, gure inguruneko kultura eta giroa sustatzeko.

Sare sozialaren bidez bultzatuko ditugu gure ekintzak, hau nahitaezkoa izango da gure enpresa aurrera eramateko.

Gure ekoizpena bideragarria izateko, lehengaiak egunero erosi beharko ditugu merkatuan, freskoak direla ziurtatzeko.

